

KONTROL MOZIOA, BRETXAKO MERKATARITZA GUNERAKO PROIEKTUA ETA ANBULATEGIA DIRELA ETA

Josu Mirena Ruizek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, honako KONTROL MOZIO hau aurkezten du, Bretxako merkataritza gunerako proiektua dela-eta, Osoko Bilkuran azter dadin. Mozio hau Pertsonen Batzordean 2016ko abenduaren 12ko bilkuran egindako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

2016ko maiatzaren 24an, Eneko Goia alkateak prentsaren aurrean, lehenik, eta gero Bozeramaile Batzordean, Bretxako Arraindegi eraikinerako Udal Gobernuaren gogoeta aurkeztu zuen. Herritarrei Bretxarako proiektu bat zuela helarazi zien eta legealdiko proiektu bat izango zela erantsi ere. Gure taldeak alkateak aurkeztutako "proiektua" (folio bat) gogor kritikatu zuen, hori proiektua ez zela argi eta garbi zegoelako.

Abenduko gure interpelazioak honela zioen: "Zer dela eta obrak ez dira 2017an hasiko? Auzotarrek noiz arte itxaron beharko dute anbulategi berria egina ikusteko?".

Alkateak adierazi zuenez, lehenik eta behin, Arraindegi eraikineko plan berezia onartu behar zen, eta nahiz eta jarduera desberdinak izan, eraikinerako proiektu bakarra izango zela erantsi zuen. Beraz, plan berezia izan arte, ezin zuela eperik jarri. Hilabete honetan plana aurkeztu da Udalean, eta anbulategia izateko galdu diren urteak ezin dira luzatu.

Gogorarazi behar da 2015eko maiatzaren 8an, Tokiko Gobernu Batzordeak Arraindegi eraikinean osasun zentro bat jartzeko administrazio emakida esleitzea erabaki zuela. Osasun zentroa jartzeko esparrua identifikatuta dago Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren erabakiari (Osakidetzari atxikitzeoari) erantsitako planoetan. Urtebete luze joan ondoren, Gobernu Batzordeak baldintzen agiriaren 5.1 eta 7. artikulua eta eranskina aldatzea onartu zuen (2016-09-06). 2017ko ekainean gaude, eta Bretxako anbulategi proiektua ez da gauzatu.

Honengatik guztiarengatik, hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

MOZIOA

1-Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio, Arraindegi eraikinean egin beharreko obretan, Alde Zaharreko eta Erdialdeko anbulategia eraikitzeak izan dezala lehentasun osoa.

Donostian 2017ko ekainaren 23an

Josu Mirena Ruiz Martin
EH Bildu udal taldeko zinegotzia